

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2006-7-26



**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

26-7-2006

Organoa edo Batzordea: Osoko Bilkura.

Bilera-mota: Ohikoa.

Eguna: 2006-7-26 (asteazkena).

Ordua: Hasiera: 19:30 eta bukaera:19:50

Tokia: Legazpiko Udaletxeko Batzar Aretoa.

Bertaratuak:

Juan Ramon Larrañaga Mercero, alkatea.

Jose Luis Herranz Gutierrez, EAko zinegotzia.

M. Aranzazu Arizmendi Gereñu, EAko zinegotzia.

Jose Luis Cid Delgado, EAko zinegotzia.

Vicente Garmendia Martinez, EAko zinegotzia.

Jose Luis Zabaleta Idigoras, EJko zinegotzia.

Iñaki Mendia Izagirre, atxiki gabeko zinegotzia.

Francisco Javier Iraeta Alvarez, EJko zinegotzia.

M. Gloria Mtnez de Guereñu Fdez de Ocariz, EJko zinegotzia.

Francisco Ramos Rehecho, Talde Mistoko zinegotzia.

M^a Isabel Ugarte Fernandez, PPko zinegotzia.

Gerardo Anton Martin, EBko zinegotzia.

Fernando Arakama Fernandez, kontuhartzailea.

Idoia Arebalo Benito, behin behineko Idazkaria.

Bertaratu ez direnak:

Oscar Jose L. Murillo Perez, PSEko zinegotzia.

Aztergaiak:

1.- Bidezkoa bada, joan den 2006-5-31ko bilkurari dagokion akta onartzea.

2.- Bidezkoa bada, lanpostuen balorazioak onartzea.

3.- EAJ alderdiak 1936ko estatu-kolpea gaitzesteko aurkeztu duen mozioa.

4.- Eman diren dekretuen berri ematea.

5.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak eta erabakiak:

1.- Bidezkoa bada, joan den 2006-5-31ko bilkurari dagokion akta onartzea.

Aipatu akta aho batez onartu da.

2.- Bidezkoa bada, lanpostuen balorazioak onartzea.

Herranz jaunak hartu du hitza eta gogora ekarri du udaletxean lanpostuak baloratzeko Araudi bat dagoela indarrean eta gai horrekin zerikusia duten gai guztiak arautzen dituela.

Organo o Comisión: Pleno.

Tipo de Convocatoria: Ordinaria.

Día: 26-7-2006 (miércoles).

Hora: Comienzo: 19:30 y final: 19:50

Lugar: Salón de Plenos del Ayuntamiento de Legazpi.

Asistentes:

Juan Ramón Larrañaga Mercero, alcalde.

José Luis Herranz Gutiérrez, concejal de EA.

M. Aranzazu Arizmendi Gereñu, concejal de EA.

Jose Luis Cid Delgado, concejal de EA.

Vicente Garmendia Martinez, concejal de EA.

José Luis Zabaleta Idigoras, concejal de NV.

Iñaki Mendia Izagirre, concejal no adscrito.

Francisco Javier Iraeta Alvarez, concejal de NV.

M. Gloria Mtnez de Guereñu Fdez de Ocariz, concejal de NV.

Francisco Ramos Rehecho, concejal del Grupo Mixto.

M^a Isabel Ugarte Fernández, concejal de PP.

Gerardo Anton Martin, concejal de IU.

Fernando Arakama Fernández, interventor.

Idoia Arebalo Benito, Secretaria en funciones.

Personas que no han acudido a la reunión:

Oscar Jose L. Murillo Perez, concejal de PSE.

Orden del Día:

1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 31-5-2006

2.- Aprobación, si procede, de las valoraciones de puestos de trabajo.

3.- Moción de condena al golpe de estado de 1936 presentada por PNV.

4.- Dar cuenta de los decretos dictados.

5.- Ruegos y preguntas.

Temas debatidos y acuerdos adoptados:

1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 31-5-2006

Dicha acta es aprobada por unanimidad.

2.- Aprobación, si procede, de las valoraciones de puestos de trabajo.

El Sr. Herranz comienza su exposición diciendo que como es conocido, está aprobada en el Ayuntamiento una Normativa de Valoración de Puestos de Trabajo, que regula esta importante cuestión.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2006-7-26



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

26-7-2006

Aipatu Araudian lanpostuak berrikusteko egoera desberdinak jasotzen dira eta bertan ezarritakoaren arabera, gaur mahai gainera ekarri dira bideratu diren eskariak, bidezkoa bada, udalbatzak onar ditzan.

Segidan, zehatz mehatz adierazi ditu lanpostuak baloratzeko 2004 eta 2005eko eskarien prozesua. Hona hemen azalpena:

- Jaso diren eskari arruntak: 2
- Ez bideratzea erabaki diren eskariak: 1
- Ofiziozko berrikuspenak: 3
- Aldi baterako atxikipena: 1
- Egindako balorazioak guztira: 5

Orain arte esandakoa honela azaldu du zabal:

- Jaso diren eskari arruntak:

Lanpostuaren kodea: 40.301 – Gazte informatzailea (Isabel Sanz Guruziaga). Egun duen maila Legazpiko Udalhitzeko 14a. Proposatutako maila: 15. Atzerako indarrez 2005eko urtarrilaren 1etik.

- Ofiziozko balorazioak

Lanpostuaren kodea: 50.102 – Osasun zentroko zelaria (Isidoro Alonso Yebra). Egun duen maila Legazpiko Udalhitzeko 5a. Proposatutako maila: 6. Atzerako indarrez 2005eko urtarrilaren 1etik.

Lanpostuaren kodea: 50.103 – Osasun zentroko zelaria (Manuel Santagueda Agirre). Egun duen maila Legazpiko Udalhitzeko 5a. Proposatutako maila: 6. Atzerako indarrez 2005eko urtarrilaren 1etik.

Lanpostuaren kodea: 20.601 – Informatikaria (Karmele Arruabarrena Lizarralde). Egun duen maila Udalhitz Legazpiko 14a. Proposatutako maila: 16. Atzerako indarrez 2006ko urtarrilaren 1etik.

- Aldi baterako atxikipenak

Lanpostuaren kodea: 20.501 – Tokiko Agenda 21eko teknikaria – Enplegu dinamizatzailea (Inmaculada Hernandez Leon). Egun duen maila Legazpiko Udalhitzeko 16a. Behin betiko balorazioa datorren urtean egingo da, Araudiaren 2.1.3. atalean zehaztutakoaren arabera.

- Produktibitate-osagarria

En la citada Normativa se establecen las distintas situaciones por las que deben realizarse las revisiones de los puestos de trabajo y de acuerdo con lo mismo, se traen a esta mesa las tramitadas para su aprobación si procede.

A continuación, pasa a explicar pormenorizadamente el proceso de las valoraciones de los puestos de trabajo de los años 2004y 2005 en los siguientes términos:

- Solicitudes ordinarias recibidas: 2
- Solicitudes no admitidas a trámite: 1
- Total admitidas a trámite: 1
- Revisiones de oficio: 3
- Adscripción provisional: 1
- Total valoraciones realizadas: 5

Desglosándose todo ello de la siguiente manera:

- Solicitudes ordinarias:

Código del Puesto 40.301- Informador Juvenil (Isabel Sanz Guruziaga) Nivel actual Udalhitz Legazpi 14. Propuesto 15. Con retroactividad al 01 de enero de 2005.

- Valoraciones de oficio:

Código de Puesto 50.102-Celador Ambulatorio (Isidoro Alonso Yebra) Nivel actual Udalhitz Legazpi 5. Propuesto 6. Con retroactividad a 01 de enero de 2005.

Código de Puesto 50.103-Celador Ambulatorio (Manuel Santagueda Agirre) Nivel actual Udalhitz Legazpi 5. Propuesto 6. Con retroactividad a 01 de enero de 2005.

Código de Puesto 20.601-Técnico Informático (Karmele Arruabarrena Lizarralde) Nivel actual Udalhitz Legazpi 14. Propuesto 16. Con retroactividad al 01 de enero de 2006.

- Adscripción provisional:

Código de Puesto 20.501- Gestor Agenda 21 Local –Dinamizador de Empleo. (Inmaculada Hernández León) Adscripción provisional propuesta Udalhitz Legazpi 16. Valoración definitiva a realizar el año próximo, según está dispuesto en el apartado 2.1.3 de la Normativa.

- Complemento de productividad

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2006-7-26



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

26-7-2006

Lanpostuaren kodea: 20.301 – Administrazio Orokorreko Administraria (Xele Inza Urzelai).

Lanpostu honek bere gain hartu ditu 20.202 kodea zuen lanpostuaren eginkizunak, aipatu lanpostu horren jabea erretiroa hartu duelako. Beraz, eginkizun berriak hartzean interesa eta gogoia agertu denez, honako proposamena egin nahi da: egun duen maila Udalhitz Legazpiko 12a da eta talde bereko 13. mailara iristea ahalbidetuko duen produktibitate-osagarri bat ezartzea. Atzerako indarrez 20065eko azaroaren 12tik, egun horretan eskuratu baitzuten eginkizun berriak..

Proposamena erabakitzeke botoetara jo ondoren, aho batez onartu da.

3.- EAJ alderdiak 1936ko estatu-kolpea gaitzesteko aurkeztu duen mozioa.

Iraeta jaunak hartu du hitz eta aurkeztutako mozioa euskaraz irakurri du. Era berean, gogora ekarri du aurten legezko Gobernu Errepublikanoaren aurkako estatu-kolpea orain dela 70 urte eman zela ospatzen dela aurten.

Segidan, gure lurraldean gerra zibilak eta Francoren erregimenak izan zituen ondorioak adierazi ditu. Bukatzeko, Osoko Bilkurak ondoko mozioak onar ditzala eskatu du:

- 1.- Orain dela 70 urte gertatutako Estatu kolpea gaitzesten du. Ideia politikoak lortzeko edo defendatzeko helburua duen bortxakeri oro gaitzesten du.
- 2.- Oroitzapen historikoaren berreskurapena eskatzen du, egia ezagutzeko eskubide gisa eta justiziaren nahiz demokraziaren berme gisa.
- 3.- Publikoki aitortzen du euren ideia demokratikoak defendatzearen zuzenezuzenean ondorio negargarriak, ekonomikoak nahiz edonolakoak jasan behar izan zituztenen balioa eta samina.
- 4.- Frankismoaren biktima izan zirenek duten kalteordain moralerako eta ekonomikorako eskubidea aldarrikatzen du.
- 5.- Herrien arteko laguntasunaren eta demokratikoki ideia politiko ezberdinen alde borrokatzen dutenen berradiskidetzearen alde lan egiteko konpromisoa hartzen du.

Código de Puesto 20.301- Administrativa Administración General (Xele Inza Urzelai).

Este puesto se ha hecho cargo de las funciones que desarrollaba el puesto 20.202, amortizado por jubilación de su titular. Por ello y por el interés e iniciativa demostrados en la asunción de las nuevas funciones, se propone el abono de un complemento de productividad en la cuantía de un nivel, que iguale el Nivel actual Udalhitz Legazpi 12 que tiene asignado, con el 13 del mismo grupo, con retroactividad al 12 de noviembre de 2005, fecha de asunción de las nuevas funciones.

Se procede a la votación y se aprueba por unanimidad.

3.- Moción de condena al golpe de estado de 1936 presentada por PNV.

El Sr. Iraeta pasa a dar lectura a la moción en euskera, recordando, en primer lugar, que este año conmemora el 70 aniversario del golpe de Estado militar contra el legítimo Gobierno Republicano.

A continuación pasa a narrar el significado y consecuencias que tuvieron la guerra civil y el régimen franquista en nuestro territorio, por lo que termina presentando para la asunción y su aprobación por el Pleno de las siguientes mociones:

- 1.- La condena del golpe de Estado ocurrido hace ahora 70 años. Condena de todo tipo de violencia que tenga como objeto la consecución o defensa de ideas políticas.
- 2.- Reclama la recuperación de la memoria histórica como derecho a conocer la verdad, como garantía de justicia y de democracia.
- 3.- Reconoce públicamente el valor y el dolor de quienes directamente han sufrido las consecuencias luctuosas, económicas o de cualquier otro tipo por haber defendido sus ideas democráticas.
- 4.- Reivindica el derecho a la reparación moral y económica de las víctimas del horror franquista.
- 5.- Se compromete a trabajar por la concordia entre los pueblos y por la reconciliación entre quienes democráticamente luchan por diferentes ideas políticas.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2006-7-26



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

26-7-2006

Mozioa erabakitzeke botoetara jo ondoren, Ugarte andrearen eta Ramos jaunaren abstentzioarekin onartu da.

4.- Eman diren dekretuen berri ematea.

Deialdiarekin batera bidali dira 190 eta 257 zenbakidun bitarteko dekretuak.

5.- Eskariak eta galderak.

Mendia jaunak zehaztasun bat egiteko hartu du hitza eta joan den 2006ko maiatzaren 31ko Osoko Bilkuraren aktaren eguneko 4. aztergaiari dagokionez, Legazpiko Udalaren 2005eko Kontu Orokorrak onartzean aldeko botoa eman bazuen ere, ezezkoa eman nahi izan zuela jasota gera dadila eskatu du.

Horrela jaso da.

Alkateak, arratsaldeko zortzirik hamar gutxi direnean, amaitutzat eman du bilkura eta aztertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezen akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut.

Se procede a al votación y se aprueba con la abstención de la Sra. Ugarte y del Sr. Ramos.

4.- Dar cuenta de los decretos dictados.

Los Decretos han sido entregados junto con la convocatoria, cuyos números se comprenden desde el 190 hasta el 257, ambos inclusive.

5.- Ruegos y preguntas.

El Sr. Mendia solicita que conste en acta que en la anterior sesión plenaria de 31 de mayo de 2006, con respecto al punto 4.- del Orden del Día “ aprobación si procede de las Cuentas Generales del Ayuntamiento Presupuesto 2005”, que aunque votó a favor, en realidad quiso votar en contra.

Así se hace constar.

El alcalde levanta la sesión, siendo las diecinueve horas y cincuenta minutos, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta de todo lo cual, yo, el secretario, doy fe.

<p>Akta hau 00 - - (e)an egindako bileran onartu zen:</p> <p><input type="checkbox"/> bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.</p> <p><input type="checkbox"/> baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak.</p>	<p>Este acta fue aprobada en la sesión del día - - 00 :</p> <p><input type="checkbox"/> en su integridad, sin ninguna objeción.</p> <p><input type="checkbox"/> si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas.</p>
<p>Idoia Arebalo Benito Behin behineko Idazkaria</p>	<p>Juan Ramón Larrañaga Mercero Alkatea</p>